


GORROTO DELITUAK



ZER DIRA GORROTO DELITUAK?

Edozein pertsonaren, talderen edo horien ondasunen aurkako delitu penalak dira. Biktima, lekua edota delituaren objektua bere sexu-orientazio edo genero-identitatearengatik hautatzen dira (OSGI).

Gorrotodelituak tolerantzia ezan eta aniztasuna ez onartzean oinarritzen dira. Pertsonen berezko duintasuna eta Giza Eskubideak delitu bidez ukatuta sortzen dira, aniztasun sozial, politiko eta kulturala baztertu eta ez onartuta.

Delitua egiteaz gain, **kalte erantsia** ere egiten da. Delitugileak mehatxu-mezua bidaltzen die biktimaren parekoei eta haren erreferentziarako kolektiboari, euren ere berdina jasateko arriskua dutela adieraziz.

ZER ESKAINTZEN DU ERAKUSKETA HONEK?

Erakusketa honen helburua OSGI gorrotodelituen egoera ikusgarri egitea da. Gainera, LGBTI eskubideen promozioan eta salaketan eragina duen analisi kritikoa eta jendartearen mobilizazioa bultzatu nahi du.

Gorrotodelituen egoera hiru mailetan erakutsi nahi izan da —tokikoa (Euskadi), nazionala (estatu espainiarra) eta Erdialdeko Amerika eta Mexiko— herrialde bakoitzaren errealtate konkretuaren analisia egiten laguntzeko eta horrela, egiturazko ezaugarrien identifikazioa ahalbidetu eta mundu-mailako politikak horietan duten inpaktua neurtu ahal izateko.

Era berean, OSGI gorrotodelituekin amaitzeko helburua duten estrategiak sortzeko klabeak jaso nahi izan dira.

NORTZUK GARA?

ALDARTE elkarteak 1994ko otsailetik egiten du lan sexu eta genero aniztasunaren arloan. Horretarako, abian jartzen ditu eta gizarteari eskaintzen dizkio arreta, hezkuntza eta sentsibilizazio baliabideak. Haien helburua da **irtenbide positiboak bilatzea LGBTI kolektiboaren aurkako intolerantzia eta aurreiritzi sozialak sortzen dituzten galazkak konpontzeko.**

ALDARTE elkartearentzat, Giza Eskubideen defentsarekin bat agon da LGBTI pertsonen eskubideen defentsa, eta gure lanaren ardatz nagusi bat izan da, ezinbestekoa berdintasunezko gizarte bat eraikitzeko, pertsona guztienganako errespetua printzipio gidari gisa hartu duena, inor baztertu gabe beren sexualitateak, gorputzak eta generoak bizitzeko moduagatik, edo beren azalaren koloreagatik, kulturagatik edo klase sozialagatik.

2005ean, lan ildo bat ireki genuen Nazioarteko Lankidetzaren Eraldatzailearen alorrean, beste erakunde batzuekin batera hainbat proiektutan eta lan sareetan parte hartzen ari ginela, horietan sexu eta genero aniztasunaren ikuspegia txertatze eta indartze aldera.

Urratsez urrats aurrera egiten goazen heinean, **KooperAldarte** lan ildo jarri dugu martxan. Lan tresna plural, askotariko eta fluido bat eskaintzeko helburua dugu, haren bidez irudikatzen dituzten alternatibak eta aukera teoriko eta praktikoko berriak, eredu hegemoniko neoliberal, etnozentriko eta heteronormatiboaren aurkakoak.

Giza Eskubideen inguruko formakuntza, babesa eta sentsibilizazioaren aldeko ekintzak egiten ditugu KooperAldarten. Diskriminazio eta indarkeria egoerak salatzen ditugu, gorrotodelituekin lotura dutenak batez ere, eta LGBTI kolektiboaren ikusgarritasuna eta ahalduntzea bultzatzen dugu. Proiektu honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Euskadiko Garapenerako Lankidetzaren Agentziaren babesa jaso du.

ANTOLATZAILEA



KooperAldarte



<https://kooperaldarte.org/eus/>
Twitter: @AldarteOrg

LAGUNTZAILEAK



Giza Eskubideen Defentsarako Elkartea

Elkartea

Elkartea

Elkartea

DISEINUA

orkami